

ZALDIBI, GAZTETXOEN KABI!



Zaldibiako gaztetxoek herriarekiko duten lotura indartzeko partaidetza prozesua

ZER DA?

Herriko 11-15 urte arteko gaztetxoak erdigunean jarriko zaituzten partaidetza prozesu bat.

ZERTARAKO?

Herriarekiko duzuen lotura indartu, zuen beharrak ezagutu eta asetzeko bidea hasteko.



ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus

PROZESUAREN FASEAK:

1. FASEA: Prozesua abiatzea – 2021eko martxoa

2. FASEA: Nerabeak entzun – Egoera ezagutzea –
Maiatzak 8

3. FASEA: Nerabeek eraiki – Zer nahi dugu? –
Maiatzak 15

4. FASEA: Emaitzen deboluzioa gaztetxo eta
gurasoei – Ekainak 11

5. FASEA: Nerabeekin adostutakoarekin bidea
egiten hasi. 2021 irailetik aurrera


MAIATZEKO SAIOAK

Zuzenean parte hartu duzuen bi saiotan garatu da prozesuaren muina:

1. SAIOA: Maiatzak 8, larunbata 17:00etatik 19:30etara

- Helburua: herrian duzuen kokapenez hausnartu, egoera ezagutu eta jabetzen lagundu.
- Parte hartzea: 28 partehartzaile. LH6-8 kide, DBH1- 13 kide, DBH2- 6 kide , DBH3- 2 kide

2. SAIOA: Maiatzak 15, larunbata, 11etatik 13:30etara

- Helburua: Identifikatu diren beharrei erantzuteko ideiak bildu eta ekintza zehatzak erabaki.
 - Parte hartzea: 20 partehartzaile. LH6- 6 kide, DBH1- 7 kide, DBH2- 5 kide , DBH3- 2 kide
- 

DIAGNOSTIKOA: EGOERA EZAGUTU



DIAGNOSTIKOA: EGOERA EZAGUTU

GUSTUKO GAUZAK:

- Herrian zehar hainbat espazio, hobetzeko proposamenekin: nabarmenenak liburutegia eta eskola inguruko espazioak, udan erreka barne.
- Udako jarduerak herriko gazteekin.
- Ekintza ezberdinetan parte hartzea

BEHARRAK:

- Espazio itxi bat
- Dinamizatzailearen figura
- Kasu egitea – protagonismo handiagoa
- Ekintza desberdinak antolatzea (kontzertuak, tailerrak ...), mugimendua herrian


PROIEKTUAK

- ESPAZIOAREN ERABILERA:

"Gure lokala"

Espazioei dagokionez proiektu izarra lokalarena da. Denek nahiko antzeko deskribatzen duzue: espazio bat, mahai eta eserlekuez hornitua, baita denbora-pasatzeko bestelako osagarriekin ere.

Kudeaketarako proposamen batzuk badaude, zalantzak ere bai. Lortzeko esperantza handirik ez duzue, jakinak dira aurreko urteetan izandako gora-beherak.



PROIEKTUA: GURE LOKALA

GURE IRITZIA:

Jasota geratzen da zuen eskaera eta ulertzen dugu belaunaldiz belaunaldi errepikatzen den nahia izanik epe motz-ertainean heldu beharko zaiola gaiari.

Hala ere, aurtengo testuinguruan gaiak behar duen lanketa eta pandemia direla eta, ezinezkoa ikusten dugu proiektu hau segituan bideratzea.


GURE PROPOSAMENA:

Egoera normaldu arte eta elkarrekin bide bat egin arte, gai hau momentuz geldirik uztea, nahiz eta etorkizuneko lokalaz hitz egiteko tarteak ere bilatuko ditugun.

PROIEKTUAK

► EKINTZA EZBERDINAK:

- "Zaldibia tournament"
 - Bideo joko lehiaketa.
- "Futboleko tornea"
 - Futboleko torneoak.
- "Torneoak"
 - Kirol eta talde ezberdinetako lehiaketa.
- "M.M.I.X.L.G."
 - Ekintza ezberdinak batzen dituen proiektua: irteerak, tailerrak, lehiaketak ...
- "Gazteentzako ekintzak"
 - Ekintza ezberdinak batzen dituen proiektua: mendi irteerak, kontzertuak, lehiaketak ...
- "Liburutegiaren erabilera"
 - Dinamizatzaile baten beharra zehazten dute.



PROIEKTUA: EKINTZA DESBERDINAK

GURE IRITZIA:

Egungo testuingurua kontuan izanda oso proiektu bideragarri eta interesgarria izan daitekeela uste dugu ekintza ezberdinen egitarau edo denboraldiak antolatzea: irteerak, txapelketak, tailerrak...

Eredua: gustuko duzuela jakinda, udako jardueren antolaketa modua izan daiteke eredu.

Bi elementu izango lirateke ezinbestekoak:

- Dinamizatzailea
- Zuen elkarlana ekintzak diseinatu eta aurrera eramaterako garaian.

ONDORIOAK

PROZESUAZ:

Benetan eskertuta **gaude** zuen parte-hartzearekin eta aurrera begira bide berean jarraitzea nahi genuke, baita etorri ez direnak bidera elkartzea ere.

EMAITZEZ:

Aurten bertan martxan jartzeko moduko **proiekturen bat** ateratzea nahi genuen, baina ez guk proposatutakoa, zuen barrutik ateratakkoa baizik.

Osotasunean ez bada ere (lokalarenak pixka bat itxaron beharko duelako), **dinamizatzaile batekin ekintza ezberdinak antolatzeko ideia erabat bideragarria eta onuragarria** iruditzen zaigu, bai zuentzat, baita herriarentzat ere.

HURRENGO URRATSAK

01

UDA 2021:

Orain uda garaia dator. Gehienak udako jardueretan murgilduko zarete.

02

IRAILA 2021:

Gure proposamena da datorren kurtsoa hastearekin batera, denok berriro elkartzea ekintza ezberdinen egitaraua prestatzen eta garatzen hasteko, dinamizatzaile baten laguntzarekin.

03

ZUEN IRITZIA NAHI DUGU:

- Prozesuaz
- Gure proposamenez
- Hurrengo urratsez

**ESKERRIK
ASKO!!!**

**ZALDIBI,
GAZTETXOEN
KABI!**